

C2 - EUSKALDUNTZEAREN 4. MAILA

EZAUGARRI NAGUSIAK

- **180 orduko** ikastaroak.
- **Astean bi egun**, goizez edo arratsaldez (10:00-13:00 / 18:00-21:00) edo **larunbatetan** (09:00-15:00) edo **ostiral arratsaldetan** (16:00-22:00)
ordutegiak orientagarriak dira.
 - Urriak 13 – ekainak 8 (astelehen eta asteazkenetan)
 - Urriak 14 – ekainak 9 (astearte eta ostegunetan)
 - Urriak 17 – ekainak 19 (ostiral arratsaldetan)
 - Urriak 11 – ekainak 20 (larunbatetan)
- 10 tutoretza).
- Homologatutako irakasleak.
- HAbEren 4. maila [egiaztagiria](#)¹ lortzeko aukera².
- Ezinbestekoa izango da euskarri informatikoan lan egiteko aukera izatea (eskolatik kanpo), bai idatzizko lanak egiteko eta baita ahozkoak grabatzeko.
- Matrikula-saria orotara (ikastaroa + tutoretzak): **642 €**

NORENTZAT?

- Lan edo ikasketengatik, 4. maila edo hizkuntza eskakizuna behar duenarentzat.
- Ziurtagiria behar ez arren, bere hizkuntza gaitasuna (ahozkoa eta idatzizkoa) hobetu nahi duenarentzat.
- Bere euskara sakondu, aberastu, gozatu... nahi duenarentzat.



¹ 4. HEren titulu baliokidea

² Agiria eskuratu ahal izateko, 3. maila (EGA) edo baliokidea izan beharko da.



IKASTAROAREN NOLAKOA

- Idatzizko eta ahozko hizkuntza landuko da.
- Helburua zuzentasuna eta, batez ere, egokitasuna izango da; hau da, euskara zuzen erabiltzeaz gain, nahi dugun moduan erabiltzeko gaitasuna lortzea:
 - Gure helburuak beteko dituzten testuak sortzea, ahoz zein idatziz.
- Bi ardatz izango ditu ikastaroak: eskolak eta proiektua.
 - Eskolak: hizkuntzaren hainbat alderdiri erreparatuko zaio, talde lanean, euskarak dituen baliabideak aztertzeko eta lantzeko.
 - Proiektua: Ikasleek proiektu bat garatuko dute, bakarka eta eskola orduetatik kanpo, irakaslearen tutoretzak lagunduta.



*Informazio zehatzagoa jasotzeko edota **matrikula egiteko**,
hurbildu gure euskaltegietara:*

